



**tolosaldeko
ataria**

Fernandoren urtea 12-17



galtzaundi

TOLOSALDEKO hitza®



Txokirre

2014-03-14

86 zenb.



Apirilaren hasieran hasiko dira atez ateko hondakin bilketarekin, Ibarra 4-5

Amaia Artola psikologoa 6-7 • Larraul-Hernio-Larraul proba 8-9

Peironcely ingeniaria, P.J. Aranbururen eskutik 18-19 • **Ahoz Aho jaialdia** 24-26

Egin zaitez Atarikide
martxoaren 31 baino lehen,
eta jaso Mahala baserriko produktuez
osatutako saski ederra

opari!



Atarikide guztien artean **Juansarenea landetxean** asteburuko egonaldia zozketatuko dugu!

Atarikide egiteko

atarikide@ataria.info • 943 65 56 95



ataria.info



107.6 fm



LARRE-GAIN

Bertako sagarrarekin
egindakoa

Igande gaua eta
astelehena
itxita



Hernanitik
autobus zerbitzua
ostiral gauean,
larunbat eguerdian eta gauean,
eta igande eguerdian

Larre-Gain baserria, Ereñozu Auzoa. 20.120 Hernani
Tel. 943 55 58 46 - Fax. 943 55 58 46

Helmugan eta bidegorrian



Estitxu Eizagirre Kerejeta
Argia-ko zuzendaria

Herrikide gizonezko batek kontatu zuen nola bidegorrian korrika zihola Zizurkilgo 40 korrikalarik osatutako emakume taldearekin gurutzatu zen. Aurpegiarekin islatu zuen umorez sentitu zuena, txikiagotu balitz bezala, eta «emakume askok hauxe sentituko zuten askotan» enpatizatzen balio izan ziolako pozik zen gertakizunarekin. «Ostiraletan 18:30-19:30 biltzen gara, konpromisorik gabe. Ahal dudanetan noa, ezin dudanetan kale. Eta badakit 19:45erako umeeekin egongo naitzela» zita arrakastatsuen azalpenak eman zizkigun Lilatoian, 20 urtetik 50era bitartekoek osatzen duten taldeko partaide den zizurkildarrak. Entrenatzaileak ere izango du parterik arrakastan: Aitziber Ibarbia, goi mailako mendi lasterkaria. Aurtengo Txapel Egunean bere herrian omendu berri dutena.

Gizartearen arrakastaren ikur da kirola eta emakumeei ukatutako gorputza du oinarri. Berdintasunera bidean ez da lan eremu txantxetakoia, beraz. Eta Ibarbiaren jardunak bi bideak uztartzen dituela nabarmenduko nuke: lehian puntaz punta ibiltzea, eta lehiatu beharrik gabe taldearekin eta norberaren buruz gozatuz gaitasunak lantzea. Bakanek urratu ditzaketek kirol markak jokatuz eta parte hartzea aberasten duten ekimenak elikatuz. Artikulu hau irakurtzerako Larraul-Ernio lasterketa egina izango da, eta aurtien ere helmugaratzen lehenetarikoa izatea desio diot. Eta kirolarien ondoan ezkutuan egon ohi den etxeko taldea ere zorionduko nuke, bidegorrira edo lasterketara korrika irteteko beharrezko baita zaintza lanetan kide bat gelditzea.

Ugaritzen doaz bide gorriko kirolariak, frontoiko pala taldeak, eta lore bila abiatzen diren oinezkoen taldeak. Paraje ederrean bizi gara udaberriko eguraldia lagun gorputzari astindu bat emateko. Goza gaitzen!



Tolosaldeko ataria



TOLOSALDEKO hitza®



Argitaratzailea:

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, S.L

Lege Gordailua: SS-1323-2013

Zuzendaria: Ainhoa Oiarzabal

Telefonoa: 943 655695

Faxa: 943 650018

Webgunea: www.ataria.info

E.P: ataria@ataria.info

Irratia: FM 107.6

Papereko editorea: Eneritz Maiz.

Interneteko editorea: Rebeka Calvo.

Irratiko editorea: Jon Miranda.

Publizitatea: 661 678818 • publi@ataria.info

Tolosaldeko

Komunikazio Taldea, S.L-ko kideak:



BERTAKO
HEDABIDEAK



berria



Tolosaldeko gizarte eragileak

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:

- Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goitatz, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIALA
Hezkuntza Politikaren Sailburuordetza



Ainhoa Alonso ingurumen teknikaria, Itziar Saizar ingurumen zinegotzia eta Jexux Peñagarikano alkatea, atzo, ontziak erakusten. i.t.

Datorren astean banatuko dute hondakin bilketarako materiala

Beko Bideko lokalean emango dituzte ontziak eta informazioa, asteazkenetik larunbatera

IÑIGO TERRADILLOS

Apirilaren hasieran hasiko dira atez ateko hondakin bilketarekin Ibarrran, eta herritarrek datorren astean jaso ahal izango dituzte sistema berrirako ontziak. Horiek zintzilikatze zutabeei dagokienez, duela bi aste hasi ziren jartzen, eta dagoe-

neko ia guztiak jarrita daude. Beraz, beharrezko tresneria eta azpiegiturak prest egongo lirateke atez ateko bilketari ekiteko.

Lau ontzi banatuko dituzte martxoaren 19tik 22ra bitarte, herritarren artean. Bi marroiak izango dira, organikoarentzat, eta horietako bat, txikiagoa dena, poltsa konpostagarriarekin etxean edukitzeko izango da. Poltsa hori betetzean beste ontzi marroira pasa beharko da, eta hori izango da kalera aterako dena. Beste ontzi bat, urdina eta tapa horiduna, ontzi arinentzat eta

papera eta kartoiarentzat izango da, eta dagokion egunean zintzilikatuko da zutabeetan, dagokion hondakinarekin. Azkenik, ontzi grisaren errefusarentzat izango da.

Ontzi horiek udalak Beko Bidean duen lokalean banatuko dituzte, eta ontziekin batera, poltsa konpostagarriak, imana duen egutegi txiki bat, hondakinak egoki sailkatzeko gida, ereduaren euskarria eta birziklapenaren euskarria banatuko dituzte.

Horrez gain, udalak herritar guztien buzoietan informazio guztia la-

Zizurkilgo puntu beltzein murala pintatuko dute

I. TERRADILLOS ZIZURKIL

Medeak elkarteak eta Zizurkilgo neska talde batek Zizurkilgo puntu beltzei buruzko mural bat margotuko dute etzi, igandean, 12:00etan, Egari tabernaren aurrealdean jarri duten panel batean. Antolatzaileek esan dutenez, ekimen «ikusgarria» izango da, aurretik ez baita inoiz halako ezer egin Zizurkilen, are gutxiago herritarrek beraiek margotzen parte hartuz. Euren helburua da «ahalik eta jende gehien elkartzea, adin guztietakoak, eta denen irudimenaren bidez, mural eder bat osatzea». Murala herriaren erdian geratuko da, eguneroko joan-etorrian jende ugari igarotzen den lekuan.

Herritar guztiei egiten diete dei parte hartzeko, baina bereziki gazteei: «Aurrerantzean seguruago ibili ahal izateko, denok eskuetan brotxak hartuz, kolorez jantziko ditugu gaur egun puntu beltz direnak».

Gure Esku Dago ekimenaren inguruan bilera

I. TERRADILLOS AMEZKETA

Amezketan egingo den Gure Esku Dago ekimenaren inguruan hitz egiteko bilera egingo dute etzi, igandean, 12:00etan hasita. Kultur etxean izango da bilera, eta ekimenean parte hartu nahi duten herritar, eragile edota elkarte guztiak animatu eta gonbidatu dituzte bilerara joatera.

DATUAK

ONTZIAK

Lau ontzi. Ibarrako Udalak lau ontzi banatuko dizkie herritarrei.

- Materia organikoa: Etxean erabiltzeko ontzi bat izango da, eta beste bat kalera ateratzeko.
- Errefusa: Kalera ateratzeko ontzi bat.
- Ontzi arinak + papera eta kartoia: Ontzi bakar bat erabiliko da.

ONTZIEN BANAKETA

Herritarrei. Beko Biden udalak duen lokalean banatuko dira:

- Martxoak 19, 20, 21: 10:00 - 13:00 eta 18:00 - 21:00.
- Martxoak 22: 10:00 - 14:00etara.

Merkatariei. Martxoaren 24, 25, 26, 27 eta 28an banatuko zaie.

BILKETA SISTEMA

Hasiera. Apirilaren hasieran jarriko da martxan hondakin bilketa sistema berria.

EGUTEGIA

Ontzi arinak.

Astelehena eta osteguna.

Organikoa.

Astearte, ostirala eta igandea.

Papera eta kartoia. Asteazkena.

Errefusa. Larunbata.

Pixoihalak eta konpresak.

Egunero.

Ordutegia.

20:00 - 22:00.

INFORMAZIO BULEGOA

Lekua. Kultur Etxea (672 654 506, ibarra@tolosaldea.org).

Astelehena, asteazkena, ostirala. 10:00-13:00.

Astearte, osteguna. 17:00-19:00.

burbilduko duen idatzia banatuko du. Merkatariei, berriz, martxoaren 24tik 28ra, biak barne, banatuko dizkiete sistema berrirako ontziak eta informazioa.

Bestalde, informazio gehiagorako bulego bat ireki du udalak kultur etxean, eta zalantzak hor argitu daitezke. Astelehen, asteazken eta ostiraletan 10:00etatik 13:00etara egongo da zabalik, eta astearte eta ostegunetan 17:00etatik 19:00etara. 672 654 506 telefono zenbakian eta ibarra@tolosaldea.org helbidean ere argitu daitezke zalantzak.

Sistema berria martxan

Sistema berria apirilaren lehen egunetan izango da, baina, ezartze data zehatza ez dute jarri oraindik. Udalak esan duenez, bando bidez jakinaraziko du hasierako eguna. Hori bai, hondakinak zein egunetan utzi beharko diren, eta ordutegia zehaztu dute.

Jexux Peñagarikano Ibarrako alkateak azaldu duenez, atez ateko bilketa sistema martxan dagoen herrietan bezala «datuak iraultzea da gure helburua». Udala «ilusionatuta» dagoela ekimen berriarekin adierazi du, baina, era berean, jakitun dela herritarrentzat aldaketa bat esan nahi duela honek guztiak. Dena den, sistema hori jarrita duten herrietan bertako herritarrek «modu egokian» egiten dutenez, Ibarran ere gauza bera gertatzea, eta herritarrek arduraz eta erantzukizunez erantzungo dutela espero duela esan du.

Bestalde, orain arte egindako lana ere azpimarratu du Ibarrako alkateak: «Bilketa sistema martxan jarri bitarte udala ez da geldi egon; konpostatzeari garrantzi handia eman diogu, bai auto konpostari, bai eta auzo konpostari ere, eta azken horri dagokionez, iaz bi gune jarri genituen, eta aurten beste bost, eta orotara, 160 familia inguruk konpostatzen du egun».

Amaia Artola • Psikologoa eta gerontologoa

«Zaintzaileen errealitatea azaleratu nahi izan dut»

Dementia duen amak alabari idatzitako gutunarekin lehiaketa irabazi du belauntzarrak

IÑIGO TERRADILLOS

Bergarako amodiozko gutunen lehiaketa irabazi du Amaia Artola belauntzarrak. Psikologo eta gerontologoa da bera, eta batez ere, adineko jendearekin eta bereziki adinekoen zaintzaileekin egiten du lan. Hain justu, berak idatzitako gutunak bere lanbidearekin lotura estua du, izan ere, dementia diagnostikatu dioten ama baten papelean sartu, eta haren alabari idatzitako eskutitza da belauntzarrak idatzitakoa.

Esperotako saria izan al da?

Oso pozik nago, sariak beti izaten baitira pozgarriak, eta sorpresaz jasota badira, are eta gehiago.

Amodiozko gutun batean pentsatzean agian bestelako eskutitza etortzen zaigu burura. Zuk, amak alabari idatzitakoa aukeratu duzu.

Agian, horregatik izan zen sorpresa handia sariarena. Gaia ere sorpresa izan da jendearentzat irakurri duenean. Maitasun gutuna esatean bikote baten arteko maitasuna etortzen zaigu burura, baina ama eta alabaren artekoa ere izan daiteke, eta nik hori aukeratu nuen. Askok esan didate alde ilun edo tristeago bat ere baduela, baina hori errealitatearen parte ere bada.

Zer da bertan kontatzen dena?

Eskutitz hori emakume batek idatzten du, neurologoaren kontsultatik atera berritan. Dementia bat diag-



Bergarako Amodiozko Gutunen Lehiaketa irabazi du Amaia Artolak. ATARIA

nostikatu diote, eta bere alabari idazten dio. Lehendik ere etxe horretan antzerako egoera batetik igarodirenez, emakume horrek badaki edo aurreikusitako dezake nolako zaintza prozesua eramango duen alabak urte batzuk barru. Horregatik idazten dio gutuna, esanez, gordezala, eta indarra falta zaionean edo zaintzaren zailtasun une horiek agertzen direnean hartu dezala eskutitza eta irakur dezala. Gogoratu ditzala elkarrekin igarotako bizipen onak, eta gogoratu dezala zailtasun horietan ez dela bere ama, baizik

eta gaixotasuna bera dela une horiek eragiten dituen. Galdu egiten denean, jendea ez duenean ezagutzen, gauzak zertarako diren ez dakienean, gauean lorik egiten uzten ez duenean... Une horietan ez dela bere ama, gaixotasuna dela esaten dio, baina, gainerako une guztietan bere ama dela, eta amak alaba maite duen moduan, alabak ere maite dezala ama.

Emozio handiko eskutitza da, gogorra.

Bai. Egia esan, maitasuna bada, emozioa bada, baina gogortasun

hori ere hor dago. Hori ere errealtatearen parte da. Hain justu, hori zen nire asmoa, errealtatearen parte hori ikustea. Izan ere, zaintzaile askoren sentipena da beraiek bakarrik bizi dituztela gauza horiek. Eta, ez da horrela. Jende askok bizi ditu emozio eta egoera horiek. Nolabait hori azaleratzea bazen asmo nagusietako bat. Idaztea asko gustatzen zait, eta lanean ikusi eta bizitako egoera horiek islatu nahi nituen.

Psikologo eta gerontologo izanik, eta adinekoekin eta euren zaintzaileekin lan eginda, gertutik ezagutzen duzun errealtatea da.

Bai, oso gertutik ezagutzen dut. Lanean adinekoak nahiz zaintzaileak ezagutu eta ikusten ditut, eta jakin badakit, zaintzaile askoren sententzia dela ez direla zaintzaile sentitzen. Zaintzen dute, baina ez dute euren burua zaintzaile moduan ikusten.

Gutunak idazteko ohitura ba al ze-nuen?

Betidanik gustatu izan zait idaztea. Ez nuen gehiegi idazten, eta iaz animatu nintzen Bergaran dagoen idazle eskolan hastera. Adinekoen edo zaintzaileen inguruan zerbait idaztea zen nire helburua. Ariketa desberdinen artean gutun bat idaztea proposatu ziguten, eta nik hori egin nuen, eta lehiaketara aurkeztu nintzen.

Adineko bat zaindu behar izatearen errealtatea gertutik bizitzea egokitu al zaizu?

Uste dut gisa horretako egoeraren bat, gertuago edo urrunago, guztiok bizitu dugula. Ni txikia nintzela, nire amonak alzheimerra izan zuen, eta horren inguruko oroitzapen ugari ditut, bere gaixotasunaren garapena nolakoa izan zen, eta ingurukoek nola zaindu genuen. Horrek niri gerora lagundu dit gauza asko ulertzeko; zaintzaileek euren bizipenak kontatzen dituztenean eurei ulertzeko lagundu dit, esaterako. Hain justu, zaintzaile askok eskatzen dutena hori da, beraiek ulertzea, irudi-

pena daukatelako jendeak ez dituela ulertzen.

Perfil jakin bateko pertsonak izan ohi dira adinekoen zaintzaileak, kasurik gehienetan emakumeak.

Gutxinaka-gutxinaka aldatzen ari da, eta ikusten ari da gizonezkoen parte hartzea geroz eta handiagoa dela, baina, hala ere, adin ertaineko emakumeak izan ohi dira nagusi. Sandwich generazioa deitzen zaion fenomeno bat dago, euren senitartekoak zaintzen dituzten gurasoena, eta aldi berean, seme-alabak edota bilobak zaintzen dituztena. Horiek benetako zaintzaileak, letra larriz idatzitakoak lirarteke. Bestalde, egia da, emakumea lan



Adinekoak zaintzen dituzten askok ez dute euren burua zaintzaile moduan ikusten»

munduan sartu delako aldatzen ari dela perfila, baina, orain arte, etxe-koandrea eta adinez nagusi izaten hasia izaten zen. Badago jendea ere, beren lana utzi beharra izan duena zaintzeagatik, baliabide asko ez daudelako. Gaur egun, ikusten da, baita ere, zaintzaile profesionalak ere badirela, emakumeak gehienago, eta etorkinak asko. Aipatu behar da, menpekotasuna duten pertsona gehienak emakumeak direla, izan ere, bizi itxaropena handiagoa da emakumeena gizonezkoena baino.

Adineko bat zaintzea egokitzen zaienek, jakiten dute nola egin?

Oso zaila da, batez ere, sendiko bat zaintzea suertatzen zaigunean. Ez da gauza bera senitarteko bat ez dena zaindu, edo zure ama edo aita edo bikotea zaintzea. Errol aldaketak ematen dira, esaterako alabak amaren errola hartzen duenean eta ama alaba baten moduan portatzen denean. Egoera horietan bizipen eta emozio asko daude, istorio

bat dago atzetik, eta hori guztia kudeatzea oso zaila eta gogorra da. Formakuntzak ere badaude sendikoentzat, eta prestaketa lana egiten da, egoera horri aurre egiteko. Zaintza fisikoak eta eragin emozionalak lantzen dira. Kasu askotan, ordea, jendeak ez dauka zaintzaile izatearen kontzientzia. Zaintze prozesua, baina, txikitatik egiten den zerbait da, guztiok baikara zainduak eta guztiok gara zaintzaileak.

Zure gutunean dementzia diagnostikatu dioten amaren azalean jarri zara, eta alabari gutuna idatzi diozu, gaixotasunak okerrera egingo duen unean irakurri eta indarra eman diezaion. Egoera berean aurkitzen den bati ariketa hori egitea gomendatzen diozu?

Kasu gehienetan, ez esateagatik kasu guztietan, dementzia bat duen pertsonari ez zaio diagnostikoaren berri ematen. Beraz, nire eskutitzean fikzioaren alderdi hori dago, eta ez dut uste errealtatean horrelakorik gertatzen denik. Dena den, idaztea beti gomendatzen dut, barruan dituzun sentipenak atera ahal izateko oso baliagarria baita.

Zaintzaileei zein mezu idatziko zenieke zuk?

Zaintzaileak egoera on eta txarretarako daude, zailetan, baina, baita bestelakoetan ere. Pertsona batek dementziaren bat izango balu, nahiz eta jendea ez ezagutu, beti daki nor dagoen hor; ez du agian ezer esango gaitasun hori galdua duelako, baina nabaritzen zaio no-rekiko daukan gertutasuna. Zaintzaileek, askotan, hori behar dute, balorazio hori edo errekonozimendu hori. Zaindua den pertsona horrek, agian, keinuren bat egingo dio, baina oso zaila da hortaz konturatzeta. Gainera, normalean, gauza negatiboak hartzen dira kontuan, eta horiek egoera horretan geroz eta gehiago ematen dira. Guzti honetan alde positiboren bat bilatzen saiatzeko esaten diet nik, beti heldu behar baitzaio zerbaiti.

Villabona-Aiztondo



Probak 836 metroko desnibela du, eta ondorioz proba «gogorra» dela onartzen dute antolatzaileek. I GARCIA LANDA

Aurreikuspen «onak» dituzte aurtengo mendi lasterketarako

Larraul-Hernio-Larraul mendi lasterketaren IV. edizioa ospatuko da igande honetan

MAIER UGARTEMENDIA LARRAUL

Igandean, 10:30ean abiatuta, ospatuko da IV.Larraul-Hernio-Larraul mendi lasterketa. Proba «finkatzen» ari da Andres Aristi antolatzailearen ustez. Urtero ibilbide berdina man-

tentzen dute, proba «gogorra» Aris-tiren esanetan. Izan ere, 836 metrotako desnibela du probak. Larraul herria 240 metro inguruan dago eta Hernio, berriz, 1075 metrotan.

Lehen urtean izan zen partaide-tza handiena, baina, esan bezala proba gogorra izateak zenbait jende-ek esperientzia ez errepikatzea eragin du antolatzaileen esanetan. Hala ere, 125 partaidetan finkatua

dago parte hartzea. Eta aurtengoan eguraldi ona aurreikusia dagoenez, parte hartze «ona» espero dute.

Izena www.cdutseta.es web orrian eman daiteke, 10 euro ordainduta, bertan agertzen den kon-tu korrontean egin behar delarik diru sarrera. Edo egunean bertan, irteera lekuan 20 euro ordainduta. Eta urtero bezala, masajea jasotzeko eta dutxatzeko aukera eta ha-maiketakoa izango dira.

Mauka
berria



ERABILTZEKO EPEA: uztailaren 10era arte

POSADA EL CAMPO OSTATUA

Masaje saio bat bi gauko egonaldi batean

*logela bikoitz batean: 2 gosari,
2 afari baratzako produktuekin
eta ordu bateko iraupena duen
masaje bat*

99,00€

pertsonako

deskontua **%38**

SECADURA - CANTABRIA

Peio Garin • **Korrikalaria**

«Probak igandero Herniora igotzen ginen garai haiek gogorarazten dizkit»

Peio Garin (Zizurkil, 1961) korrikalaria omenduko dute aurten Larraul-Hernio-Larraul mendi lasterketan. Hamahiru urtetatik hogeita hamasei urtetara ibili zen lasterketetan. Eta anaia Juan Marik eta berak errekorrez eta garaipenez josia dute euren ibilbidea.

Nolatan hasi zinen korrika egiten?

Eskolan animatuta. Maisu batzuk etorri ziren Zizurkil Behetik. Gu sei urtetatik hasi ginen plazatik base-rriera egunean bi kilometro egiten. Nik anaia nuen hiru urte zaharagoa, Juan Mari, eta hari atzetik segika ibiltzen nitzen, ezinean. Irakasleak etorri zirenean, Agerreko bueltan probatu gintuzten. Lehenengo egunean denok batera ibili ginen eta 200-300 metro atera nizkion bigarrenari. Hurrengo astean etorri zirenean, besteak baino atzerago ateratzeko esan zidaten eta lehenengo bueltarako pasa nien eta beste hainbesteko aldea atera nien. Igandean Zumaiara joan ginen. Nik ez nekien karrerako erritmoa nola ematen zen eta hirugarren gelditu nintzen. 12-13 urte nituen eta gurasoei elizara konfesatzera joan behar nuela esan nien. Eta handik dominarekin itzuli nintzen.

Gazte hasi zinen, beraz, garaipenekin.

Zumaiako karrera eta gero, bi aste-tara, Anoetan Gipuzkoako Txapelketa izan genuen. Eta han Zumaiara irabazitakoari 500 metro atera nizkion. Handik hamabost egunera Zornotzan izan zen Euskadiko Txapelketa eta azkeneko kilometroan aurreratu eta irabazi egin nuen. Orduan, jada herri mailan interesa piztu zen. Espainiako Txapelketa Sala-



Igandean omenaldia jasoko duen Peio Garin, Zizurkilgo plazan. m. u.

mancan izan zen eta Zizurkil Behetik autobus bat atera zuten; herriko jende ugari joan zen.

Hasieratik ikusi zen indartsu zentozela...

Zornotzakoa irabazi nuenean Agilar korrikalariak esan omen zuen izar bat zetorrela. Madrilerajoateko proposamena egin zidaten, bertan ikasi eta entrenatzeko aukera nuen. Baina, orduan 13-14 urte nituela, hemendik aldegitiko gogorik ez nuen. Gu hemen ibili ginan Euskadi mailan nabarmenduz. Gero jubenil mailan Espainiako azpi-txapeldun geratu nintzen.

Maila altuetara salto egin zenuen gero.

Juniorretan Munduko Txapelketan izan nintzen bi urtetan jarraian; batean Holandan, han Munduko Txapeldun gelditu ginen taldean, eta bigarren Estatu mailako korrikalarien artean. Txapelketaren aurretik hogeitau egunetan bilduta egon ginen eta hara iritsi ginenean ateratzen nintzela nengoen. Hamalagarren geratu nintzen. Hala ere, gustura. Hu-

rrengo urtean Parisera joan ginen. Italian ere Nazioarteko batzuetan ere parte hartu genuen.

Irabazitako guztien artean, garaipen bereziren bat badaukazu?

Bartzelonan maratoni erdi batean bigarren geratu nintzen. Azkeneko momentu arte aurrean joan nitzen eta azkeneko metroan andaluz bategen pasa zidan eta pena handia sentitu nuen. Hemen, bi Behobia irabazi nituen eta irabazitako bietan errekorra egin nuen. Beste giro bat egoten zen orduan. Markarik onena bigarren Behobian egin nuen, 1991an. Boulevardean marka haustera zoazela jakinda sartzea oso berezia izan zen. Agian, niretzat gogokoena hura izan zen.

Igandean jasoko duzun omenaldia zer moduz jaso duzu?

Horrelako albisteak beti ondo jasotzen dira, ilusioa egiten du. Gainera, asko gustatzen zaigun proba bat da; tamaina ere polita du. Gaztetan ia igandero Herniora igotzen ginen, eta garai haiek gogorarazten dizkit. Errekonozimendu interesgarria da.

Kirol taula

ALEGIA

PILOTA ELORRI PILOTALEKUAN

Martxoak 14, gaur

19:30. Udaberri txapelketa, eskuz binaka jubenilak eta nagusiak: Intxurre- Gailurrerantz eta Intxurre-Soraluze.

AMEZKETA

PILOTA LARRUNARRIN

Martxoak 14, gaur

20:00. Eskuz binaka, Gipuzkoako infantilak: Zazpi Iturri- Añorga.

TOLOSA

PILOTA

Martxoak 15, bihar

16:00. Gipuzkoako eskuz binakako txapelketa bigarren mailako alebinen artean: Tolosa- Tolosa.

Martxoak 16, etzi

17:00. Ogi Berri Migel Soroaren omenezko pilota txapelketa, Beoti-barren.

ARETO FUTBOLA

Martxoak 14, gaur

20:30. Gipuzkoako bigarren maila, Uzturpen: Bikutz- Egintza.

Martxoak 15, bihar

16:15. Hirugarren nazional maila, Eskolapioetan: Tolosala- Mallabia.

17:45. Gipuzkoako ligako lehen maila, Eskolapioetan: Barrantol- Ventanas ISU.

19:15. Gipuzkoako bigarren maila, Eskolapioetan: The Nest Cerve- Plaza Berri.

SASKIBALOA USABALEN

Martxoak 15, bihar

09:00. Infantil gizonetzkoak: Take Txiki- BKL.

09:00. Infantil neskek: Take Izaskun- Loinazpe.

09:00. Kadete gizonetzkoak: Take Gorriti- Oiartzun.

10:30. Junior gizonetzkoak: Take

Belate- Easo.

10:30. Kadete emakumezkoak: Take Aralar- Bergara.

10:30. Kadete gizonetzkoak: Take Inpernu- Bergara.

12:00. Kadete gizonetzkoak, eskal liga: Take- Araberri.

14:00. Senior gizonetzkoak: Take Coach- Gamon.

16:00. Senior gizonetzkoak: Take Orbela- Alu. Alberdi.

FUTBOLA USABALEN

Martxoak 15, bihar

09:30. Infantil lehen maila, gizonetzkoak: Tolosa CF- Dumboa.

11:00. Infantil ohorezkoak, gizonetzkoak: Tolosa CF- Vasconia.

12:30. Infantil txiki gizonetzkoak: Tolosa CF- Intxaurdi.

14:00. Infantilen lehen maila, gizonetzkoak: Dan. Amaro- Dan. Astea.

15:30. Junior lehen maila, gizonetzkoak: Tolosa CF- Ostadar.

Martxoak 16, etzi

11:00. Alebin gizonetzkoak: Tolosa CF- Hernani.

FUTBOLA BERAZUBIN

Martxoak 15, bihar

16:30. Junior ohorezkoak, gizonetzkoak: Tolosa CF- Mondragon.

ESKUBALOA

Martxoak 15, bihar

18:00. Nazional senior gizonetzkoak: Tolosa CF- Pulpo.

Martxoak 16, etzi

12:00. Lurraldeko senior gizonetzkoak: Tolosa CF- Leizaran.

ZIZURKIL

PILOTA INTXAUR PILOTALEKUAN

Martxoak 16, etzi

16:15. Udaberri txapelketa eskuz binaka nagusiak: Ziotza- Iparraldekoak.

Eskualdean abiaraziko da gurpil gaineko txapelketa

Lehen jardunaldia Bidania-Goiatzko frontoian izango da, bihar, 10:00etatik aurrera

ITZEA URKIZU

III.Gurpil Aulkiko Gipuzkoako Txapelketa bihar bertan hasiko da Bidania-Goitazko pilotalekuan.

10:00etatik aurrera, Hilario-Edorta, Aizpe-Beñat, Iñaki-Aingeru eta Edurne-Jurgi bikoteak ariko dira, denak denen aurka. Bikote irabazleak bi puntu eskuratuko ditu, eta galtzaileak, berriz puntu bakarra. Horrela, maiatzaren 31n Usurbilen izango da finala.

Udaberri txapelketa pil-pilean

Zesta puntako eta Joko Garbiko Udaberri txapelketak ere iritsi dira amaierara, eta asteburuan izango dira finalak. Eskualdeko taldeek ordezkaritza izango dute, gainera, txapela irabazteko lehian, hainbat kategoriatan.

Zesta puntaren kasuan, gaur bertan izango dira partidak, 20:00etan, Mutrikuko Miruaitz pilotalekuan. Tolosako Beotibar taldeko Lekuona eta Amundarain ariko dira, jubenilen finalean, Zumaiaiko Larrañaga eta Seguirolaren aurka.

Joko Garbiaren kasuan, berriz, bihar jokatuko dituzte finalak, 17:00etan, Oiartzungo Madalensoro pilotalekuan.

Nagusien mailan Villabonako Behar Zana taldeko Mitxelena eta Santxex ariko dira txapela lortzeko norgehiagokan. Aurkari gisa, berriz, Zubieta taldeko Aizpurua eta Aizpurua izango dituzte.

• ataria@ataria.info

Tolosako Babarruna Elkartea ekoizle berrien bila dabil



Ezkerrean, hobekuntza genetikoaren lortzeko Villabonan jarritako negutegia, eta eskuinean, Fronton jatetxean egindako kata. ATARIA

Arrazoiak bi dira: ekoizle batzuk adinagatik erretiroa hartu izana eta 2013ko urte txarra

ERREDAKZIOA

Tolosako Babarruna Elkartek atek ireki ditu. Orain arte ezin zen ekoizle izan, baina orain Tolosako Babarruna ekoizteko eta elkartearen bidez merkaturatzeko aukera ireki dute. Horretarako ekoizleek gutxienez 1.000 metro koadroko soroa landatu behar dute, eta Eusko Labela lortzeko araudian ezarritako baldintzapean ekoiztu behar da.

Ekoizle izan nahi dutenei eginiko deialdia bi arrazoiengatik eman dela dio elkartek; batetik, 2013ko urte txarra, eta bestetik, ekoizle batzuk adina dela eta erretiratu izana.

Izan ere, 2013. urtea «gogoratze-koa» izan dela esan du elkartek. «Udaberrian egindako eguraldi txarrak uzta bakarrik ez, merkatua ere

baldintzatu zuen, merkatu gose baten aurrean aurreikusitako kiloetatik urrun gelditu ginelarik», esan dute. Horiek horrela, kanpaina «oso irregularra» izan dela esan dute, eta soroko etekinetan gorabehera handiak egon direla nabarmendu.

Eguraldia medio, hortaz, aurreikusta zeuden 20.000 kiloetatik 14.000 kilo besterik ez dira elkartetik pasa, «uzta benetan eskasa». «Ez gara bakarrik izan nonbait, urrutira joan gabe, estatu mailan zurrumurruak kontutan edukita, eta merkatuaren jokamoldea ikusita, aspaldiko urtetan izan den uztarik eskasena izan dute. Argentinan ere mundu mailan dagoen lekadun ekoizleen artean garrantzitsuenetakoa, lehortearen eraginez esportazioak %50 baino gehiago jaitsi dira», esan dute.

Hobekuntza genetikoa

lazko uzta eskasa izan bazen ere, urte oparoa izan zen babarrunaren hobekuntza genetikoan. 2012an

jarri zuten abian proiektua, eta jada lehen emaitzak eman ditu. Hobekuntza genetikoaren lortzeko Villabonan jarri zuten negutegi bat, eta helburuak babarrun landare linea berriak bilatzea, landaketa emaitzak hobetzea, eta, ondorioz, errentagarritasuna hobetzea dira.

Negutegian 19 landareren karakterizazioa egin zuten, eta landareen garapen, iraupen eta ekoizpen datuak hartu zituzten kontutan. Batetik, antraknosia moduko gaitzik jasan duten ala ez ikusi zuten, eta 19 horietatik 11 gelditu ziren. Ondoren, landare horietako babarrunekin dastaketa bat egin zuten Tolosako Fronton jatetxean, eta sukaldatzeko ezaugarriak baloratu zituzten. Bertoko sukaldari den Roberto Ruizek sukaldatu zituen eta hainbat pertsonen dastatu zituzten. Elkartek esan duenez, dastakeraren ondoren, litekeena da landareetako batzuk programatik kanpo geratzea.


• ataria@ataria.info

ASIER IMAZ AMEZKETA

Fernando Amezketarrek 250 urte betetzen ditu aurten. 1764. urtean jaio zen, eta arrazoi horrengatik, Amezketan, 2014a Fernandoren urtea izendatu dute. Udal ordezkariak, herritarrek, elkarteak, eskola eta abar lanean ari dira, herriaren izena abizen bezala duen pertsonaia omentzeko lanetan. Duela 250 urte sortu zen gorputza joan zen; baina garai hartan esango zuten bezala: arima, bizi-bizirik dago.

Meatzaria, artzaina, baina batez ere, bertsolaria. Gipuzkoako onenetakoa omen zen. «Azpeitiko san-sebastianetara eraman zuten, beste bertsolari batekin indarrak neurtzera. Tolosako inauterietan Fernando, Zabala, Txabalategi eta Altamira lehian aritu ziren arratsalde osoan. Villabonan ere egon zen, Txabalategiren eta Zabalaren arteko apustuan, baina epaile bezala. Bi ordu bertsoetan eman ondoren, ezin erabaki zein zen hobea, eta epaileek berdinketa deklaratu zuten». Testu liburuetako pasarte hauek, Fernando bertsolariaren neurria agerian uzten dute. Ahozko tradizioak eman dio Euskal Herriko historian bere lekua amezketarrari; eta euskal herritarren bihotzean, agian, apaizei emandako lezioek. Edo, agian, gehitxo esatea izango litzateke hori. Edo, ez. Batek daki. Zalantzetatik haratago, pertsonaia irekia bilakatzen dute Fernando Amezketarra: gertukoa eta maitatua.

250. urteurrenaren jakitun, Amezketako Udala aurreko legealdian hasi zen 2014a prestatzen. Euskaltzaindiarekin orduan eduki zuten lehen hartu-eman. Zuhaitza astindu ondoren, fruituak martxoaren 19rako prest izango dira, egun horretan, Euskaltzaindiko zuzendaritzak bere batzarra Amezketako




Iraganaren oraina, Fernando Amezketarra

udaletxean egingo baitu. Hitzordu historiko hori, urte osoko egitarauaren lehen ekimena izango da. Ondoren etorriko dira Fernandoren Txokoak ibilbidearen aurkezpena edota Fernando Astea.

Herritarren gogoa eta inplikazioa

Fernando Amezketarrek herriarentzat duen garrantzia ikusita, amezketarrek zeresana zutela pentsatu zuen udalak. Horrengatik, iaz, herritarrek batzar batera deitu zituzten. Yolanda Gorostidi kultura zinegotziak dioen bezala, «zerbait egin beharra zegoen urteurrenaren harira». Lehen bilera horretan ideiak bildu zituzten. «Aurrez, 2014ko egutegia atera genuen, Fernando

gaitzat hartuta. Ondoren deitu genituen herritarrek. Urtarrilean bilera berri bat egin genuen, lehen batzar hartako ideiak txukuntzeko eta urteko egitarauari forma emateko. Duela bi aste ere elkartu ginen, eta apirilera ere deituak gaude»; lantaldearen dinamikaz ari da Gorostidi. Otsailean eskean atera ziren etxe-etxe, eta bildutako dirua, Fernando Urtea antolatzeko erabili dute. Bide batez, eskerrak eman nahi izan dizkie kantatzera atera ziren guztiei; Bixente Gorostidi bertsolariari eta Xabier Lixarra trikitilariari, «eta bereziki, balkoi eta lehioetan zain eduki genituen herritar guztiei, eta tabernariei emandako modakutxoengatik».



Fernandoren bustoa herriko frontoian. i.g.l.

Ondorengo hitzordua martxoaren 19an da, eta azken orduko aldaketekin etorriko da. Euskaltzaindikoko ordezkariak etorriko dira, baina ez hasieran espero zirenez guztiak. «Goizean zuzendaritzaren bilera egingo zela jarri genuen egitarauan, eta arratsaldean Herri Literaturaren Batzordeko kideena. Azken hauek, ordea, ezin izango dute Amezketara etorri». Ondorioz, udal ordezkariak dioen bezala, goizeko aurreikusia zegoen batzarra arratsaldean egingo dute. 15:30ak inguruan elkartuko da Euskaltzaindikoko zuzendaritza udaletxean. Behin bilera pribatua amaitu ondoren, Fernando Amezketarrari eskainitako plaka erakutsiko dute kultur

etxean, eta jarraian etorriko diren hitzaldiek ere, Euskaltzaindikoko ordezkarien presentzia izango dute.

Egitarau zabala osatu dute herritarrek, eta azken orduko aldaketek euren lekua izango dute, ekimen berriak bidean baitira. Yolanda Gorostidiren esanetan eskolan gaia urte osoan landuko dute, eta Buruntzuntzin Mendi Elkartearen lanetan ari da: «Fernando meatzari eta artzain bezala ibili zen Aralar inguruan. Horren harira, Buruntzuntzin elkartekoak zerbait egiteko asmoa dute paraje horietan». Ekarpene guztiak dira ongietorriak, eta herritarrenekin gustura daude udal ordezkariak. «Herritarren parte hartzearekin gustura gaude. Balan-

tze oso positiboa eta oso ona egingo dugu. Amezketarren inplikazioa nahi genuen pertsonaia herriarentzat oso esanguratsua baita. Intereza eta gogoia erakutsi dute egitaraua osatzen ibili diren herritarrek, eta horrela jarraitzea espero dugu. Benetan eskertzekoa da», dio Gorostidi kultura zinegotziak.

Lantaldearen gogo eta inplikazio horren isla da Jose Mari Otermin. Amezketako historialari ofizial izateko ez zaio asko falta Otermini. Herriaren eta amezketarren nondik norakoak ikertzen pasa dituen orduak eta egunak dira titulu ez ofizial horren adierazle. Martxoaren 19ko ekimenean bertan egongo da Jose Mari Otermin, Pello Zabalarekin batera, hitzaldia eskaintzen. Fraideak Fernando Amezketarraren odola darama, eta horren inguruan hitz egingo du. Historialaria, aldiz, galdera bati erantzuten saiatuko da: Zer dakigu Fernandoz? Norberaren gozamenak besteara ekartzen duenez, hitzaldietara joaten direnak gustura egoteko parada izango dute, ziur. Lantaldetik nahiz udaletik, deialdi hori luzatu dute, ekimen guzti hauetan parte hartzeko eskatuz.

Urte osoko egitarauak hurrengo geldialdia apirilean egingo du. Hila-bete horretan aurkeztuko dute Fernandoren Txokoak ibilbidea. Yolanda Gorostidi zinegotziaren esanetan, oraindik lanketa hori burutzen ari dira, eta apirilaren amaierarako prest izatea espero dute.

Euskaltzaindiko idazkariordea da Erramun Osa (Zizurkil, 1964). Egun, Durangaldean bizi da zizurkildarra, 240 biztanleko Garain herrixkan.

Aurrez, Barakaldon, 10 urte igaro zituen irakasle moduan. Landa gunetik Ezkerraldera, eta berriro itzuli da landagunera. Euskararen etorkizuna, hain zuzen ere, herri eta hiriguneetan jokatzeko delako dio. Euskaltzaindiko zuzendaritzako kide izaki, martxoaren 19an Amezketa izango da.

Nola sortu zen Euskaltzaindiaren batzarra Amezketa egiteko aukera?

Oker ez banago, 2011n jarri ginen Amezketa Udalarekin harremanetan, Fernando Amezketa urteurrenaren harira. Zerbait antolatu behar zela ikusten genuen, eta orduko haren garapen gisa etorri da oraingo hau.

Nola lotu genezake Fernando Amezketa Euskaltzaindiarekin?

Nire ustez, Fernando ez da mundu jakin batean izan dezakeen irudia bakarrik. Azkenean, garai batean, testuinguru batean kokatu beharra dago. Eta gure ustez inportantea zen pixka bat testuinguratzea; pertsonaia, pertsona, pertsona horrek egindako ekarpena, garaia, eta abar. Eta orduan testuinguru horretan bururatu zitzaigun Amezketa urreratzea, eta Amezketa zerbait egitea Fernando Amezketa urteurrenaren lana eta garaia nolabait gaur egunera ekarri ahal izateko.

Zertaz hitz egingo duzue zuzendaritzaren bileran?

Azken finean, zuzendaritzak nolabait Euskaltzaindiaren buruzagitzara osatzen du. Euskaltzaindiaren jardunbidea gidatzen du, gero noski, Osoko Bilkurak hartzen ditu erabakiak, baina, harian-harian zuzenda-

ritza hilean behin edo birritan bil-tzen da. Bertan askotariko gaiak jo-rratzen dira, normala denez: izan egitasmoen jarraipenaren inguru-koak; batzorde lantaldeen jarduna-ren ingurukoak; aurrekontuak; hitzarmenak; lankidetzak... Zuzenda-ritza zortzi kidek osatzen dute, eta 2013ko urtarriletik berria da. Agin-taldi berria, hain zuzen ere, 2013-16 urte bitartekoa da.

Euskaltzaindiatik nola baloratzen duzue Fernando Amezketa urteurrenaren ekarpena?

Agian herri literaturaren inguruan iaioa den beste norbaiten berbak egokiagoak dira kasu honetan, bai-na zenbaitetan, pertsonaia bat-zuen gainean hitz egiten denean, irudikapen bat dago. Belaunaldiz-belaunaldi etorri zaigun irudikape-na, baina gutxitan ezagutzen da momentu jakin batean pertsonaia horrek bizi izan zuen testuinguru-a, inguru-a, garai bateko herritarrak nola bizi ziren. Batzutan txistek eta horrelako kontuak bakarrik etortzen zaizkigu, baina esaterako, sasoi bateko gertaerak, bizimoduak, ekarriak... ikusten ditugu gaurko begiekin. Nik uste badauka-la horrek bere garrantzia. Horregatik ez da bakarrik zuzendaritza ber-tara eman eta bilkura egitea. Nor-malean, gainera, bideo hitzaldiz egiten ditu bilerak zuzendaritzak, normala denez. Batzuk Iparralde-koak dira, besteak nafarrak, bizkai-tarrak... Baina horrelako une seina-latuak direnean, bildu egiten da, eta joan egiten da halako tokietara. Horrela, gogora ekarri nahi izaten da pertsona horren ekarria zein izan zen. Amezketa bilera egin ondoren, pentsatua dago plaka bat eta irudi bat ikustaraztea, eta hor-ren ondoren hitzaldi bat ematea, pertsona eta pertsonaia bera eza-gutzerara ematen lagunduko digute-nak.

Zabala eta Otermin ariko dira hain zuzen ere hitzaldian.

Polita izango da gaurko begiekin or-

duko kontuez hitz egitea. Zenbaite-tan badira pertsonaia batzuen gai-nean behar bada halako irudi deso-rekatu bat izateko joera, eta nik uste garrantzitsua dela horiei ere balioa ematea. Azken finean, eus-kara eta berarekin loturiko euskal kultura ez da bakarrik momentu ja-kin batean liburuetan edo bestela-ko zeretan topa dezakeguna; baita ere badira, herritarrek harian-ha-rian, testuinguru batzuetan egin izan dituzten ekarpenak. Eta horiei





Erramun Osa
Euskaltzaindiko idazkariordea

«Garrantzitsua da Fernandok bizi izan zuen testuingurua ezagutzea»

balioa emateko, horiek azpimarratzea ere garrantzitsua da.

Euskara eta Fernando, nola laborbildu amezketarraren ekarpena.

Orduko eta gaur egungo garaiak diferenteak dira. Orduan, ekonomia nola zegoen egituratuta eta egun nola dagoen oso bestelakoa da. Gainera, euskarak halako ibilbide bat egin du. Sasoi batean, batez ere eremu euskaldunetan zegoen, eta hor joan da poliki-poliki zokoratzen. Azken hamarkadetan alderantzizko

joera nabaritzen dugu, batez ere, hego Euskal Herrian, eta Euskal Autonomia Erkidegoan hori bistakoa da; hiritartu egin da. Gainera, aurtan betetzen dira 50 urte Gabriel Arestiren *Harri eta herri* poema liburua argitaratu zela. Gabriel Aresti hain zuzen ere beste bat da, baina kasu horretan Bilbon kokatua. Hiri handi batean kokatua. Behin eta berriz azpimarratzen zuen hizkuntzaren eta euskararen biziberritzea nonbaiten jokatzen baldin bazen,

hiri eta herri guneetan jokatzen zela. Orduan, hor, bata bestearen kontra jarrita ez dago, baizik eta behar ditugu eremu euskaldunak; eta eremu euskaldunetatik irradiatzea inguruneetara hizkuntzaren erabilera, geroz eta jasoagoa izan dadin. Eta behar dugu baita ere euskararen presentzia geroz eta jasoagoa, geroz eta hiltun gehiago behar ditugu herri eta hiriguneetan euskarak asko jokatzen duelako, eta bere biziraupena jokatzen duelako.

FERNANDO URTEKO EGITARAUA

MARTXOA

Martxoak 19, asteazkena

- Euskaltzaindiaren bisita. Arratsaldean Euskaltzaindikozuzendaritzak euren bilera pribatua egingo dute udaletxeko pleno aretoan.
- 18:00etan, kultur etxean, Fernandori eskainitako plaka erakutsiko dute.
- Ondoren bi hitzaldi labur. Pello Zabalak *Zer izan da Fernando niretzat* azalduko du, eta Jose Mari Oterminek, *Zer dakigu Fernandoz?* galderari erantzungo dio.
- Bukatzeko, luntxa.

APIRILA

- Fernandoren Txokoak ibilbidearen aurkezpena.

MAIATZA

Maiatzak 11, igandea

- 12:30ean, Tolosako Txistulari Bandaren emanaldia herriko plazan.

EKAINA

- Fernandoren marrazkien emanaldia, frontoi zaharrean.

UZTAILA

Uztailaren 7tik 18ra

- Joseba Urretabizkaiak Amezketako elizan argizaiolei ateratako argazkiak ikusgai jarriko ditu, kultur etxeko aretoan.

ABUZTUA

Abuztuaren 28an edo 29an

- Donostiako musika hamabostaldiaren eskutik kontzertua elizan. *Amezketako aho-tsa, bertsoa eta pianoa Fernando Amezketarraren gorazarretan (1964-2014)*.
- 18:30ean, plazatik San Bartolome elizara ibilaldia, Fernandori buruz hitz egiten duten txokoez argibideak emanaz.
- 19:30ean, kontzertua San Bartolome elizan.

URRIA

Urriaren 6tik 12ra

- Fernando Astea.

Kamisetak salgai

Amezketako Maite Gurrutxaga margolariak 2014ko egitarauari bere ukitua eman zion, Fernando Amezketarra marraztuaz. Orain, bere irudi berri bat salgai jarri dituzten kamisetetan aurki daiteke. Aurreko aldean lore bat ageri da: lau hostoko hirusta. Laugarren hostoan, gorritz, Fernando Amezketarraren silueta agertzen da. Atzeko aldean bertso baten azken puntua dago: *...Gipuzkoa guziak/ar dezan atsegin*. Bertso hori Villabonan kantatu zuen Fernandok 1801. urtean, epaile lanetan ari zela. Kamisetan 3 urtetik gora guztientzat daude salgai, taila guztietakoak atera baitituzte. Erosi nahi duenak, udaletxera joan besterik ez dauka. Horrez gain, ekimen desberdinak antolatzen dituzte egunetan, kultur etxearen aurrean mahaitxo bat jarriko dute salmenta postu beza-la. Helduenak 10 euro balio ditu, eta haurrenak 8.






Peironcely ingeniariaren proiektua, 1852 urtekoa: Tolosa hiriburua Donostiarekin komunikatzeko ubidez

Pello Joxe Aranburu
Etno-historialaria

Karlos Larrinaga historialari eta lagunak, 2007an, Peironcely (1818-1884) bideetako ingeniariaren biografia idatzi zuenean, XIX. mendeko pertsonaia haren nortasuna eta Tolosarekiko Kixote antzeko batek egindako proiektuaz berriro jabetu nintzen. Peironcely kasuko artikulua honetan Karlosi laguna deitzeak badu bere arrazoia, izan ere berak aipatu biografian hauxe baitzioen: «*Han sido muchas las personas que me han proporcionado información suelta sobre alguno de los numerosos proyectos en los que tomó parte Manuel Peironcely. Son los casos de Fermín Muñoz, Pello Joxe Aranburu. . .*».



Larrinagak Peironcely-ri buruz idatzitako liburuaren azala.

Manuel Peironcely-ren nortasuna eta biografia laburra: Karlosek bere liburuan Peironcely ingeniariaren handitasunaz nola jabetu zen adierazten du. Alderdi anitz aurkitu zizkion: alde batetik, Donostia, Pasaia eta Bilboko itsaso-portuen proiektu eta hobekuntzak gauzatu zituen, (Karlosi Donostiako portuaren informazioa ekarri nion Alcalako AGA-tik, noski berak eskaturik), eta beste alde batetik, komunikabideen alorrean erruz mugitu eta ardura handiak izan zituen Espainian eta Gipuzkoan. Tolosarekiko harremana gerorako lagata, Larrinagak Norteko Trenbidea eta Pirinioetako ferrokarrilaren eztabaidan aurkitu zion ingeniariari kategoria eta maila, halaber, Aldudetako arazoarekiko Peironcely-ren dokumentu bat Tolosako GAOn aurkitu zuen Karlosek, non Irun - Gasteizeko trenbidea defendatu zuen Baiona - Iruñea, hau da, Aldudetakoaren aurka. Aurkikuntza hura momentu hartan interesgarria eta erabakigarria gertatu zen Karlos Larrinagarentzat.

Manuelen familia Marseillatik zetorren, Manuel, ordea, Madrilen jaio zen (1818), ingeniari-tza ikasketak ere Espainiako hiriburuan bukatu zituen. Berehala Madril - Alacanteko trenbidea aztertzerantz bidali zuten, 1844an, eta hauxe gehitu zuen Larrinagak: «*Pues bien, junto a Peironcely, en la comisión tomó parte uno de los ingenieros más importantes del momento en este ramo, José Subercase. Éste era hijo del insigne ingeniero Juan Subercase y había sido el número uno de su promoción, la de 1840, segunda de la nueva Escuela de Ingenieros*».

Ondoren Burgosera destinatua zuten Peironcely, eta Ramona Elosegí - Aguirre - Miramonekin ezkondu zen, 1847an. Aldi berean, Gipuzkoako errepide sarearen hamaika proiektu eta hobekuntzak bideratu zituen. Madrilgo Ingeñariaren Eskolara, 1865ean, geometria irakastera itzuli zen eta Madrilen hil zen 1884an.

Tolosa eta Donostia arteko ubidearen proiektua: titulu horixe darama Karlos Larrinagaren li-

buruko seigarren kapituluak eta sarrera luze bat egin ondoren, gehitzen du: «*Éste fue, pues, el ambiente que rodeó a Manuel Peironcely en el momento en que estaba redactando su proyecto para la canalización del río Oria*». Pablo Gorosabelek, 1850eko urtarrilaren 17an, udal arkitektoari zera eskatu zion: Manuel Peironcely ingeniariarekin hitz egiten hasteko, Donostiarekin komunikatzeko, garai hartan Gipuzkoako hiriburu baitzen Tolosa. «*Precisamente, en este contexto excepcional sitúa Martín Ramos el encargo de un proyecto por el Ayuntamiento de Tolosa para unir esta ciudad con San Sebastián mediante la navegación por canal que aprovechara el curso de los ríos*».

Peironcely-k onartu zuen plana. Pedro Lasquibar alkateak, Pablo Gorosabelek eta Jose E. Escoriaza udal arkitektoak batzorde bat osatu zuten, martxoaren bostean, eta bileran, urtearen bi sasoiotan, neguan ibaiaren emari altuan eta udan sikatean, lanak gauzatzea proposatu zion ingeniariak batzordeari. Gainera, Peironcely ingenia-

riak ubidearen ordez trenbidearen posibilitatea ere bazegoela gehitu zien. Beraz, bi proiektu egingo zituen, ubidearena eta trenbidearena. Peironcely-k bazekien Britainia Handian trenbideek zuten arrakasta eta Karlosek dio horren jakitun zela Peironcely: «*De hecho, como se sabe, desde que en 1825 se inaugurara el primer tren de mercancías del mundo, el de Darlington a Stockton, y en 1830 se abriera al público la línea entre Manchester y Liverpool, Inglaterra vivió en las décadas de los cuarenta y los cincuenta una auténtica fiebre de construcción de vías férreas*».


Peironcely-k txosten bikoitza egin zuen, 1852an: bata, Tolosa – Andoain – Lasarte – Donostia elkartuko zituena, eta bestea, Tolosa – Andoain – Urnieta – Urumea zeharkatuko zituena. Ubidearen proiektuak eragozpen ugari zituen, udan ur emari eskasa, Lasarte eta Donostia elkartzeko Terasategi muinoa gainditu behar zen, beste horrenbeste gertatuko zen Andoain eta Urnieta arteko Azkonobieta muinoarekin ere.

Ubideen tamaina eta nabigazioaren gainean, berriz, Peironcely-k mailaketak planteatu zituen: tamaina handikoak, nabigazio itzelekoak, populaketa eta mugimendu askoko ubideak alde batetik; eta, bestetik, alderantziz, Tolosan tamaina txikiak komeniko zen, 21 oin zabalera eta 6 sakoneran izango zituen.

Larrinagak Peironcely-ren txostenaren bigarren zatian xehetasun batzuk gehitu zituen: hura aurre proiektu bat besterik ez zen, Tolosan presa baten bidez ubidea hasiko zen urtegi laukizuzen handi bati esker. Ibilbide osoa 34 'eskulusek' osatuko zuten, Azkonobieta eta Loiolako Piñuetan bi tunel barne eraikirik. Aurrekontua 26 milioi errealerara iritsiko zen.

Txostenaren hirugarren zatian trenbidearen alde garbi azaldu zen, ibilbide berdinean lau tunel eta beste lau tren-geltoki ezarri zituen, Tolosa, Andoain, Hernani eta Donostian hain zuten. Obren gastua aldiz merkeago zatekeen, 21 milioikoa, ubidea baino 5 milioi erreale gutxiago alegia. Azken batean, bi bideak

konparatu eta itsu-itsuan trenbidea defendatu zuen Peironcely-k, eraikitzeko orduan eremu txikiagoa behar zuelako, merkeagoa eta komunikabide azkarragoa zelako. Azken errematetzat Larrinagak honela amaitzen du kapituluak: «*La era de los canales estaba llegando a su fin, mientras que la de los ferrocarriles estaba en plena euforia en toda Europa occidental*».



Tolosa eta Donostia arteko ubidearen proiektuari buruz Manuel Peironcely-k egindako planoak.

HITZALDIAK

Ume-eramaileen eta gNappies pixoihalen hitzaldia.

Martxoak 15, larunbata (10:30). Altxoan elkartearen egoitzan, Tolosako Plaza Berriko Abastos eraikinean. Doan, Meitaimaitie-ren eskutik.



HARITUZ HERRIARTEKO I. BERTSOLARI TXAPELKETA

Anoeta. Martxoak 14, ostirala (22:30). Goikoetxea tabernan, Anoeta eta Berastegi taldeen arteko kanporaketa.

Villabona. Martxoak 15, larunbata, (23:00). Gaztetxean, Villabona eta Amasa taldeen arteko kanporaketa.

IKURRINAREN ALDEKO EGUNA

Martxoak 16, igandea.

Inposaketarik ez! Gurea ikurrina! Ielopez antolatuta dute Alegjan. 10:00. Langaurrera martxa plazatik. Ondoren Langaurren ikurrinari omenaldia. 12:30. Ekitaldia Bulebarrean: ikurrina igotzea, txalaparta, bertsoak, dantza eta hamaiketakoa.

ZIZURKILGO III. GAZTE EGUNA

Martxoak 15, larunbata. 11:30. Herriko gazteen indar erakustaldia: hiru proba egingo dituzte. Ondoren Txepetxaren jaitsiera. 14:30. Gazte bazkaria. 18:00. Txerri harrapaketa, Lartingo zelaian. Ondoren trikipoteoa. 21:00 Xolomo afaria, Zimiterioaren kanpoaldean. 22:30. Kontzertuak: Berri Tzarrak eta Zesuma.

ZIZURKILGO ANTZERKI ASTEA

Martxoak 17, astelehena.

El Teatre de L'Home Dibuiat (Valentzia) taldearen *Harriz-harri* obra. HH2tik LH2ko ikasleei zuzendua, Zizurkilgo Atxulondo kultur etxean (10:00 eta 11:30).



DEIALDIAK

Haurrentzat jolasak. Martxoak 15, larunbata (16:30-19:30). Eziko Udalekuak jolasak antolatuta ditu 6 eta 12 urte bitarteko haurrentzat. Amasa-Villabonako Jesusen Bihotza Ikastolako jolastokian.

Gure Esku Dago ekimenaren bilera. Martxoak 17, astelehena (20:00), Ikaztegietakoda udaletxean. Martxoaren 23ko eguna antolatzeko izango da bilera.

Gure Esku Dago ekimena. Martxoak 14, ostirala (19:00), Iruran. Triki pintxo poteoa antolatuta dute.

Gure Esku Dago ekimenaren bilera. Martxoak 16, igandea (12:00), Amezketako kultur etxean.

Mural margoketa. Martxoak 16, igandea (12:00), Zizurkilgo Elbarrenako plaza. Emakumeen Nazioarteko

Egunaren harira antolatutako jarduerak.

Odolemaileak. Martxoak 17, astelehena (18:00). Tolosako kultur etxea.

Behar Zana Pilota Elkarteak batzordearen bilera. Martxoak 14, ostirala (19:30), Villabonako udaletxearen erabilera anitzeko gelan.

IBARRAKO

I. MUS TXAPELKETA HERRIKOIA

Martxoak 14, ostirala. Lehenengo kanporaketa Karlatz Garagardotegian jokatuko da, 22:00etan hasita. Finala ekainaren 27an izango da.

MUSIKA ESKOLEN ARTEKO TRUKEA

Martxoak 15, larunbata. Loatzte musika eskola eta Villafranca del Penedeseko musika eskolaren arteko trukea.

10:30. Kalejira herrian zehar.
11:30. Harrera instituzionala.
12:00. Erraldioi eta buruhandiak.
19:00. Emanaldia Gurea aretoan.
21:00. Afaria.

ANTZERKIA

Ovarios verdes fritos. Martxoak 14, ostirala (20:00). Tolosako Topic zentroan.

Kapsulak. Martxoak 15, larunbata (17:00). Haur antzerkia eta dantza, Markeliñe taldearekin. Tolosako Leidor antzokia.

Busco novio formal que marido ya tuve. Martxoak 14, ostirala (20:00). Isabel Azpirozen bakarrizketa, Alkizako kultur etxean.


MENDIA

Tolosako Alpino Uzturre Mendi Elkartearen irteera.

Martxoak 16, igandea. Kruzeta-Kanpazar, Orixol (1.128 m.).

Tolosako Oargi Mendi Elkartearen irteera.

Martxoak 16, igandea. Usabal kiroldegitik abiatuko dira, 07:00etan. Behorlegi mendira (1.265m) igoko dira.



ERAKUSKETAK

Frankismoa Amasa-Villabonan.

Martxoaren 14tik 29ra. Astelehenetik ostiralera 17:00etatik 20:00etara; larunbatetan, 11:00etatik 13:00etara. Villabonako Gurea erakusketa aretoan. Irekiera martxoaren 14ean, ostirala (19:00), egingo da eta bertan frankismoaren ondorioz sufritu zuten herritar guztiei aitortza instituzionala egingo zaie.

Ainara Aspiazu Aduriz Axi.

Tolosako GKO Gallery-n, apirilaren 26 arte.

Martxoak 15, larunbata (19:30), inaugurazioa.

Abortua Aurrez Aurre.

Erakusketa kolektiboa. Martxoaren 22a arte, Tolosa, Aranburu jauregia.


IKASTAROK ETA TAILERRAK

Placer, seducción, menopausia y sexualidad tailerra.

Martxoak 14, ostirala. Bigarren saioa. Villabonako udaletxeko erabilera anitzeko gelan, 16:00etatik 20:00etara. Hizlaria: Veronica Huerto psikologoa eta sexologoa.

Autodefentsa ikastaroa. Martxoak 15, larunbata (15:30-19:30). Alegiako kultur etxean. Izena emateko deitu 943654768 zenbakira.

VI. Esperientzia Tailerra Tolosako Azokan. Martxoak 15, larunbata (10:30-13:30). Zure etxeko hozkailua apaintzeko bultzinezko imanak tailerra egingo dute, Zerkausian, doan.



ZINEMA

La Venus de las pieles

Martxoak 14, ostirala (22:30) eta martxoak 15, larunbata (19:30 eta 22:30). Tolosako Leidor aretoan.

12 años de esclavitud

Martxoak 15, larunbata (22:00); martxoak 16, igandea (19:30); martxoak 17, astelehena (21:00). Villabonako Gurea aretoan.

Jelly T

Martxoak 16, igandea (17:00). Villabonako Gurea aretoan.

La Lego película

Martxoak 16, igandea (17:00). Tolosako Leidor aretoan.

Al encuentro de Mr. Banks

Martxoak 16, igandea (19:30 eta 22:00). Tolosako Leidor aretoan.

Monopatín

Martxoak 15, larunbata (18:00). Tolosako Box.A elkartearen. Sarrera doan.

La Mona Lisa

Martxoak 16, igandea (18:00). Anoetako Gaztetxean.

MENDI TOUR TOLOSA

Martxoak 17, astelehena

High Tension

(mendizaletasuna, 36', Publikoaren Saria Mendi 2013) eta

Messner der film

(mendizaletasuna, 104', Mendi 2013 Zuzendari Onenaren Eguzkilorea) filmak emango dituzte. Tolosako Leidor aretoan, 19:30ean. Sarrera: 5 euro.



Bonbereneako eszenatokiak sutan jarraitzen du

Inauterietako atsedenaldia eta gero, martxo eta apirila kontzertuz betea dator. Tolosako Bonbereneak agenda hitzordu interesgarri jantzi du beste behin, eta erritmo biziz beteko ditu datozen asteetako asteburuak. Kontzertuak 22:30ean hasiko dira, martxoaren 26koa izan ezik, Granadako Sonido Vegetalen kontzertua 20:00etan hasiko baita. Sarrerek 8 euro balio dute hiru kontzertuetakoak izan ezik; martxoaren 22ko eta apirilaren 4ko kontzertuengatik 5 euro ordaindu beharko da, eta Sonido Vegetal ikusteko 6 euro.

MARTXOA

Gaur, martxoak 14



Minor Empires: Nothink, Toundra, The Big Bench y Moonich taldeetan aritutako musikariek osatutako proiektu sortu berria da. Madrildik etorriko dira atera berri duten diskoa aurkeztera. Rocka eta gitarra hots indartsuak ekarriko dituzte.

Martxoak 15



Txuma Murugarren & Angel Unzu, eta El Fill del Mestre: Txuma Murugarren musikariak Angel Unzu gitarra jole eta konpositorearekin batera eskainiko du kontzertua. Ondoren, Kataluniako El Fill del Mestre taldearen txanda izango da. Jordi Gasion musikariak gidatzen duen taldea da, eta 'Nova Cançó' musika mugimendua eta Ameriketako Estatu Batuetako barklariak dira beren erreferentzia.



Bonbereneak 16. urteurrena ospatzeko ateratako talde argazkia. ATARIA

Martxoak 21



No More Lies: Zuzeneko taldea dela esan daiteke. Kataluniatik etorriko dira eta hardcore-a lantzen dute. Bederatzi urte pasa dira azken diskoa grabatu zutenetik, eta Tolosan laugarrena aurkeztuko dute, 'In The shade Of Expectation'.

Martxoak 22



Localtones, eta Tony Metrala y los antibalas: Lokaltones gipuzkoarrek diskoa atera berri dute. Tony Metrala & Los Antibalas punk rock gogor eta zuzena jorratzen dute, eta besteak beste, Parabellum, MCD eta Mundo Mataderon aritutakoek osatzen dute taldea.

Martxoak 26



Sonido vegetal: 2008an Grana-dan (Andaluzia, Espainia) sortuta-ko taldea da. Gypsy punk estiloa-ren barruan sartu ohi dute, eta To-losan 'Las bases del razonamiento' diskoa aurkeztuko dute, euren bi- garren lana, hain zuzen.

Martxoak 27



We are standard: Bilbotarrak 'Day' diskoa ari dira aurkezten. 2002an sortu zuten taldea Getxon eta ordu- tik arrakastaz arrakasta dabilta. Punk-funk eta dance-rock doinuak darabiltzate.

Martxoak 28



Moby Dick, eta Joseba B. Lenoir: Bakarlarieen gaua izango da mar- txoaren 28koa. Batetik, Moby Dick getxotarrak joko du, eta bestetik, Berako Joseba B. Lenoirrek. Nafa- rrak bigarren lana aurkeztuko du Bonberenean.

Martxoak 29



Athom Rhumba: Rock & Roll errit- moak ekarriko ditu laukoteak. Mo- mentu honetan Bonberenean ari dira buru-belarri proiektu berria prestatzen.

APIRILA

Apirilak 4



Potato: Gasteizko banda mitikoak 'Puro Derroche' diskoa aurkeztuko du. 80ko hamarkadan sortutako taldeak rock doinuak ekarriko ditu Tolosara.

Apirilak 5



El Culpio Asesino: Asko dira Iruñeko taldearen bosgarren disko- aren zain daudenak. Apirilaren 28an aurkeztuko dute 'Ballenas muertas en San Sebastián', baina lehenago Bonbereneako taula gai- nean entzun ahal izango dira talde- aren kanta berriak.

Apirilak 11



Porco Bravo: Barakaldoko taldea- ren zuzenekoak ikustekoak izan ohi dira. Rock eta gitarra doinu gor- dinak eskainiko dituzte Bonberene- an. Taldeak 2004an grabatu zuen bere lehen *demoa* eta bi disko ditu kalean: *Show!* eta *Grooo!*

Apirilak 12



Betunizer: Valentziako (Herralde Katalanak) hirukoteak hiru disko atera ditu jada eta Ameriketako Es- tatu Batuetan kontzertu batzuk jo ondoren aurkeztuko dute 'Gran Veta' lana Tolosan. Rock doinuak ekarriko dituzte.

Apirilak 14



Ten Volt Shock: Alemaniako tal- deak geldialdia egingo du Bonbere- an Europako biraren barruan. Kurt talde mitikoaren abeslari eta gita- rra jotzailea da hiru partaideetako bat.



Belarriak gozatzeko jaialdia

**A.OIARTZABAL /I. GARCIA LANDA
TOLOSA**

Aurtengo Ahoz Aho jaialdia martxan da dagoeneko. Intujai Teatrok antolatuta, Tolosan eta Ordizian egiten dira saioak, bertako udalek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak lagunduta.

Atzo hasi zen, zehazki, Tolosako egitaraua. Hamalau artistek hartuko dute parte, mundu guztiko txokotatik etorritakoak. Antolatzaile lanetan ari den Intujai Teatroko May Gorostiaga tolosarrak azaldu duenez, «gure asmoa bost kontinentetako narratzaileak izatea zen. Asiatik, Amerikatik, Afrikatik eta Europatik ditugu. Ozeaniako narratzaileak ez dago, baina Iban Nikolaik kontinente horretakoa den didjeridu instrumentua joko du. Beraz, esan daiteke kontinente guztiak ordezkatuta daudela».

Euskal Herriko narratzaileen saio

guztiak, Concertino taldearena ezik, euskaraz izango dira. Beste herrialdeetakoek gazteleraz egingo dute. «Boni Ofogo kamerundarrak bere jatorrizko hizkuntzan agian zerbait kontatuko du. Yoshi Hiokik japoniarrez ipuinen bat ere kontatuko du, guk bere hizkuntza ere entzuteko, eta bere saioetan ere euskaraz kontatuko du ipuinen bat».

Narratzaileen artean, Tolosako talde baten parte hartzea ere izango da: Amaro zuzeneko Pailaztana taldea. Iaz estreinatu zuten Tuturru-murru obra kaleratuko dute. «Tutu magiko batzuekin ibiliko gara, jendea ipuinak eta olerkiak belarrietara kontatzen», azaldu du Gorostiagak, antolatzailea izateaz gain Pailaztana taldeko kidea ere baita. «Bederatzi-hamar lagun joaten gara kaletik, eta jendea gonbidatzen diogu ipuinak entzuteko. Akustika berezia dute tutuek, eta horregatik narrazio motzak izaten dira». Ikuski-

zun horren ideia aspalditik sortu da, eta hainbat lekutan egiten dira. Ospetsuenak Pariseko talde bat dirrela dio Gorostiagak: «Beraiek tutu zuzen bat erabiltzen dute, eta guri bururatu zitzaigun estereotipoa egitea. Mangera bat hartu genuen, diadema bat eta bi botila mutur, eta horrekin osatu genuen tramankulu».

Prestakuntzaren aldeko apustua

Ikastaro bat ere izango da Tolosan. Luis Carmelo portugaldarrak emango du, Amaro zuzeneko auzo-etxean. Bertan ahozko kotasunaren inguruan arituko da Carmelo, nola kontatu ipuinak, nola narratu istorioak... «Prestakuntzaren aldeko apustua egin izan dugu beti, ikasi egin nahi dugulako», dio Gorostiagak. «Interesa duen ororentzako irekia da, ez da ikastaro espezializatu bat izango. Hori bai, ipuin kontalari batek izena ematen badu ikastaroan, Car-

Multiópticas lehenengo eragile optikoa, lehenengo eragile optikoa. Multiópticas lehenengo eragile optikoa. Multiópticas lehenengo eragile optikoa.


**mó betaurrekoak
erreflexuen
aurkako
kristalekin 67€**

guztiak zuretzat

ARRASATE • BERGARA • BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR • ERRETERIA • IRUN • ORDIZIA

San Frantzisko, 23 • Tel. 943 69 84 70 • TOLOSA

MULTIÓPTICAS
lehenengo zerbiztu optikoetan



ere badaude, edo txotxongiloak ere helduentzako izaten dira». Hori horrela, saioetara gurasoak eta haurrak batera joatera gonbidatzen ditu Gorostiagak, nahiz batzuei edo beste zuzendutako saioak izan. «Askotan ikusten ditugu gurasoek haurrak uzten dituztela, eta zer ordutan bukatzen den saioa galdetuz joaten direla. Saioan gelditzera gonbidatzen ditugu eta gero haurrekin ipuinak komentatzera», esan du. «Etxean komentatu daiteke, zer suposatu duen bakoitzarentzat, edo zer jaso duen bakoitzak ipuin horretatik. Seguru elkarrekin gehiago gozatu daitekeela esperientzia horretaz».

Narrazio lehiaketa, bigarren urtez

Ahoz Aho jaialdiaren barruan, Ipuinen Ahozko Narrazio Lehiaketa antolatu dute bigarren urtez. Sei narratzailek eman zuten izena eta hiru sailkatu dira finalerako. Ordiziako Gala Nagusiaren barruan jokatu da finala, martxoaren 21ean, 22:00etan, Barrena Jauregian, eta ondorengoak izango dira finalistak: Ibai Esoain oriotarra, iazko irabazlea; Iñaki Carretero gasteiztarra eta Pili Eskisabel ataundarra.

Ahoz Aho jaialdiaz gain, Intujai Teatrok ere beste egitasmo batzuk antolatzen ditu, Amaroako Antzerki Astea, adibidez. Gero udazkenean Zikloia Antzerki Jaialdia ere antolatzen dute Tolosan, formatu txikiko jaialdia izaten dena, eta Antzeztan Ataun herrian. «Gure helburua normalean antzerkia iristen ez den lekuetara iristea da, hau da, tabernetara, auzoetara, kaleetara... Antzerki munduan hainbat formatu daude, eta askotan ez dago aukera gauza oso politak ikusteko. Leidorren ia 900 sartzen dira, Topic-en ia 300, baina badaude obrak 40 pertsonentzako direnak, eta hamarentzako, edo Tuturumurrak bezala, pertsona batentzako. Askotan kultura joaten diren ikusle kopuruaren arabera baloratzen dugu, eta hori ez da horrela».

melok berarekin sakondu ahalko du zenbait gaietan».

Antolatzaileak gustura daude osatu duten egitarauarekin. Bi aste hartzen ditu jaialdiak, eta Gorostiagak nabarmendu du Tolosan leku askotan izango direla saioak, eta horrek asko aberasten duela egitaraua.

Bestalde, topikoak apurto behar direla gaineratu du Gorostiagak: «Esaten da ipuinak haurrentzako direla eta horrelako gauzak... Bada, saioetara etortzen diren helduek gero errepikatu egiten dute, eta hori garrantzitsua da». Oraindik narrazioen aurrean aurreiritziak daudela dio Gorostiagak, baina narrazioen denetatik sartzen dela ekarri du gogora: «Musika dago, ahotsa modu berezian erabiltzen duten artistak...».

Horrez gain, ahazkotasunak historian zehar duen garrantzia azaldu du: «Memoria historikoa ahazkotasunari esker mantendu da, askotan historia irabazleek idatzi dutelako. Ahazkotasunetik iritsi zaizkigu beste istorioa batzuk, edo nola sortu ziren gauza asko». Azken horren harira, kultura ezberdinetan ipuinak errepikatzen direla dio: «Adibidez, Japoniako mitologia eta Euskal Herrikoa hartu eta badaude ahazkotasunak, eta hori oso kuriozoso da. Horrek erakusten du zerbait baze goela historia sortu aurretik, belaualdiz belaualdi pasatu dena...»

Egun dena telebistatik jasotzen dela dio Gorostiagak: «Ipuinetan pentsatzerakoan marrazki bizidunak etortzen zaizkigu burura, baina marrazki bizidunak helduentzako



AHOZ AHO JAIALDIAREN TOLOSAKO EGITARUA

Martxoak 14, ostirala.

Yoshi Hioki (Japonia) eta Joxemari Carrere (Euskal Herria).
GKo Gallery-an, 18:00etan.

Martxoak 14, ostirala.

Yoshi Hioki (Japonia) eta Carles Garcia Domingo (Valentzia/Errioxa).
Otsabin, 22:00etan.

Martxoak 18, asteartea.

Lur Korta (Euskal Herria). Amaroazko auzo-etxea, 17:30ean. Haurrentzako saioa.

Martxoak 19, asteazkena.

Amaia Arriaran (Euskal Herria). Amaroazko auzo-etxea, 17:30ean.
Haurrentzako saioa.

Martxoak 20, osteguna.

Boni Ofogo (Kamerun) eta Patricia McGill (Uruguai). Orbela tabernan, 22:30ean.

Martxoak 21, ostirala.

Boni Ofogo (Kamerun) eta Amaia Arriaran (Euskal Herria).
GKo Gallery-an, 18:00etan.

Martxoak 22, larunbata.

Saioa Aizpurua (Euskal Herria) eta Arrate Leunda (Euskal Herria).
Bonberenean, 11:30ean. Haurrei zuzendua.

Martxoak 22, larunbata.

Pailaztana Klown Taldea 'Tuturrumurruk' (Euskal Herria) eta Iban Nikolai
(Euskal Herria). 'Artearen Kalea' (Kale Nagusia), 17:00etan.

Martxoak 22, larunbata.

Ahozkoatasunaren Gala Nagusia, artista guztien parte hartzearekin.
Topic-en, 22:00etan.

Martxoak 28, ostirala.

Saioa Aizpurua (Euskal Herria) eta Arrate Leunda (Euskal Herria).
Amarozko auzo-etxean, 17:30ean. Haurrei zuzendua.

Martxoak 28, ostirala.

Luis Carmelo (Portugal/Brasil). Amaroazko auzo-etxean, 22:00etan.
Ahozko narrazio ikastaroa. Irakaslea: Luis Carmelo.

Martxoak 29, larunbata (10:00-13:00 eta 16:00-19:00)

eta martxoak 30, igandea (10:00-13:00). Kostua: 60 euro.

Izena emateko: intujai@intujai.net edo 678 990 162 eta 647 201 401
zenbakietan, azken eguna martxoak 23.





→ Migrazio Saila

Martxoaren 21a arrazakeriaren kontra lan egiteko konpromisoa berrizatzeko data dela gogorazten dute Nazio Batuek. Egun horretan, 1960an, *apartheid*-aren legeen kontra protesta egiteko Hegoafrikako Saharpeville hirian burutzen ari zen manifestazio baketsu baten aurka tiro egin zuen poliziak.

Tolosaldea Garatzeneko Migrazio eta Aniztasun sailak, eskualdeko hainbat udal eta eragilerekin batera data hori gogora ekarri nahi du, Aniztasunaren Aldeko eta Diskriminazioaren Kontrako Jardunaldien bidez.

Berdintasunaren eta diskriminazio ezaren printzipioak erabat funtsezkoak dira giza eskubideen nazioarteko arau guztietan. Eta horrenbestez, etengabe gure gizartean ematen diren arrazakeriaren, arrazagatiko diskriminazioaren, xenofobiaren eta antzeko intolerantzia-moduen kontrako borrokan erabili behar diren oinarritzko erremintak. Era berean, udalerrietako kultura arteko elkarbizitzaren eta kohesio sozialaren oinarritzko printzipioak ere badira.

Edozein pertsona lana bilatu, etxebizitza lortu edota espazio publiko zein pribatu batetara gerturazten denean pairatzen dituen diskriminazio egoerak aurreikusi, borrokatu eta neurriak hartzea ezinbestekoa da, kultura arteko elkarbizitza sustatu eta komunitateen arteko tentsioei irtenbide baketsua eman nahi badiegu behintzat. Zentzu horretan, ondorengo ekintzen bidez herritarren gogoeta kritiko eta konstruktiboa sustatzea da gure helburua.

Aniztasunaren Aldeko eta Diskriminazioaren Aurkako Jardunaldiak Tolosaldean

MARTXOAK 6-21

Anoeta, 09:00-12:30 eta 15:00-21:30.

Erakusketa Anoetako kirolegian, Sos Arrazakeriaren *Emakumea, Etorkina, Bizilaguna*. Astelehenetik ostiralera.



MARTXOAK 23

Trintxerpeko azokatik Donostiako Bulebarrera, 11:30ean.

Arrazakeriaren aurkako martxa
Zirkulatu: Por una Europa Abierta...
lelopean, SOS Arrazakeriak antolatuta.

MARTXOAK 20

Villabona, Berdura plazan, 17:30ean.

Lingolang proiektuaren aurkezpena, non herriko ikastetxeetako hizkuntza-aniztasuna agertzen den.

MARTXOAK 23

Alegia, kultur etxean, 18:00etan.

Txintzarri Txiki eta Hodei Truk abesbatzen eta Litaarafu-Ezagutzeko elkartearen arteko kulturen arteko gerturatzea.

MARTXOAK 21

Tolosa, kultur etxean, 18:30ean.

Munduko Medikiak elkartearen osasun eskubidearen inguruko *Cuanto ganamos cuanto perdimos* dokumentalaren emanaldia.

MARTXOAK 24

Zizurkil, Atxulondo kultur etxean, 19:30ean.

Gu jatorri anitz herri bat dokumentalaren aurkezpena.

MARTXOAK 27

Tolosa, kultur etxean, 18:30ean.

Zurrumurrueen aurka, Xabier Aierdiren hitzaldia.

MARTXOAK 22

Tolosa, kultur etxean, 18:00etan.

Txintzarri Txiki eta Hodei Truk abesbatzen eta Litaarafu-Ezagutzeko elkartearen arteko kulturen arteko gerturatzea.

APIRILAK 2-3

Tolosa, kultur etxean, 18:30ean.

Zurrumurrueen aurka, Raquel Morenorekin tailer praktikoa.



Mahala Baserria
Leaburu • Gipuzkoa
Tel.: 943 670 724
www.mahalanaturala.com

Harituz



Amaia Agirre Arrastoa
Bertsolaria

Harituz Tolosaldeko bertso taldea baino gehiago da. Harituz handituz doan taldea da. Kolore, ogibide, adin eta helburu ezberdinak ditugun emakumezkoek eta gizonezkoek osatua. Denok zaleztasun bera dugu, ordea. Denok gara bertsozaleak. Harituz arituz eta adituz handituz doan elkargunea da. Asmo eta ibilbide baten mataza harilkatzen doan orratz ekintzailea. Tolosaldeko bertso-eskolen zuloen adabakia baino gehiago da. Errimatuz, arrimatuz eta herriak mimatuz oinez ikasi baino lehen kantuan hasi den ametsen mezularia da.

Hamar herri ordezkatzeko dituzten hamaika talde ari dira Harituz Herriarteko Bertsolari Txapelketan nor baino nor. Jolasa dago jokoan, eta ohorea kolkoan, baina lagunarteak dakarren gozamina da saririk desiragarriena.

Autogestioa eta autodinamika ditu zutabe. Non oinak jarri, hura oinarri. Lehenengo aldiz plazara atera diren bertsolarien erakusleihoa ere bada. Leihotik begira egon ordez ate berriak zabaltzea erabaki dutenen atari da Harituz. Eta gurgana hurbildu nahi duen bertsozale ororentzat ateak zabalik ditu, baita jardunaren plazara leihotik begira egon nahi badu ere. Aritzen direnek beti behar baitituzte aditzen ari direnak. Harituz entzulea harrituz ari da azken asteotan. Plaza txikietan saio handiak eskaintzen ari dira bertako partaideak.

Denboraren orratzak urradurak zabal ditzake baina baita erretenak itxi ere. Gure hari eta orratzek ez dute arrakalak josteko helbururik. Guk zirikituak zabaldu nahi ditugu gure hari mataza are koloretsuagoa eta are emankorragoa izan dadin. Segi dezagun elkarri korapilatuta barruko korapiloak askatzen.

Gertu



Maria Lopez Altuna
Ikaslea

Lagunak hasi dira jada udako oporrak antolatzen. Oraindik oso goiz da, hori esan diet nik behintzat. Baina, tematurik daude, garaiz mugituz gero topatzen omen dira aukera paregabeak. Italian zehar itzulia, proposatu du batek; Greziara hegaldia topatu du beste batek, merke gainera, pagotxa galanta. Bertan autobusez ibiliko ginateke harat eta honat, xarmaz beteriko hondartza bakartiak deskubrituz. Eta derrepentean akordatu naiz, hemen bertan, Euskal Herrian, badirela oraindino ezagutzen ez ditudan plaiak ere.

Polita dela dioten arren, ez dut sekula Sopolako Barinatxe hareatzan igeri egin. Zumaiako parajearen paseatu dut; gustura itzuliko nintzakete, ordea. Pirautxoak alokatu eta zergatik ez dugu Flyscha beste ikuspegi batetik gozatzen?

Aurten, oporrak beste nolabaitekoak nahi ditut. Jasangarriak, bai nire poltsikoarentzat, baita gurtion den Lurrarentzat. Iratiko basoan barrena, denboraren zentzua galdu nahi dut. Donibane-Lohitzuneko arroka tartean karrakelak bilatu edo Segurako Erdi Aroko alde zaharra ikustatu. Hartzama handia eta bere kumea, Orion gudariaren babespean ikusi nahi ditut Belaguako gau izartsuetan. Otsoen uluen oihartzuna entzun Valderejon. Zuberoako herriak zeharkatu kanpin denda bizkarrean; edo autoa milaka traste eta konpainia onaz bete eta Arabako bihotzean geldidunetxo egin, lautadan alegia.

Kopenhage, Argentinako Pampa, Kalkuta... eza-gutu nahi ditut, oraindik ez bainaiz han izan. Baina, hemen inguruan, ere, bada oraindik bisitatu ez dudana Aramaio; edota Errioxako mahasti batean dastatu ez dudana kalderetea; igo ez dudana Anboto... Aurtengo udan Eusko-Laberdun bidaiaria txartelaren alde egingo dut apustua. Inor animatzen da nirekin?



'Botiloia' nerabeen kontua soilik?



Ainhoa Barandiaran
Ikus-entzunezko komunikazioan lizentziatua

Egunak joan eta egunak etorri, ziztu batean, estrespean, badoa urtea aurrera. Tartean, gure bizitzako errutinarekin hausten duten egunak daudelarik. Inauteriak dira askorentzat, egun berezi horiek.

Pasa berri diren honetan, bertan ikusitako 'botiloiei' egin nahi diet erreferentzia. Badirudi, euskaldunok betiko parranda tabernaz taberna «dantza eginez» (komatxo artean diot, euskaldunok nahiko geldiak eta hotzak garelako), kontuak esatearekin lotzen dugula, baina badirudi, ohiturak aldatzen ari direla.


Aspaldidanik ezaguna zaigu 'botiloia', gu nerabeak ginenean 'litro-

ak egitea' esaten genion. Garai haietan Kilometroetan edota antzeko festa erraldoietarako baliabidea izaten zen edota hiri handietan gazteek egiten zuten zerbait, ahal izanez gero, ez-kutuan.

Egun, ordea, edozein herritako festetan ikus daitezke gazteak botiloia egiten, kalean, tabernetan edo beste edozein toki publikotan. Bai bai, pentsa, Astelenita egunean Donostiatik bueltan trenean nentorrela, bi gazte lurrean eseri eta bertan hasi ziren nahasketak egiten, beste batek ondotik porrutxo bat errez begiratzen ziela. Trena jendez lepo egon arren, ez pentsa haiek asko arduratu zirenik. Adibidea, ordea, ez da bakarra. Astelehenetan bertan, gazte kuadrilla bat eskuak bete botila Tolosako taberna batean sartu zen. Kanpoan nonbait eguraldi txarra eta barrura sartu behar. Tabernariak hori onartu ez eta musika itzaliz, kanpora bidali zuen gazte kuadrilla hau.

Badirudi, beraz, lotsak alde batera utzi eta ohiturak aldatzen ari direla. Heziketa, ordea, gure esku dago, bai guraso, irakasle eta oro har gizartearen esku.

KOMIKIA



Farmaziak

Martxoak 14, ostirala

Ibarra
Egunekoa eta gauekoa:
Lejeune, L.
Euskal Herria, 26
Telefona: 943 67 32 74.



Martxoak 15, larunbata

Tolosa
Egunekoa eta gauekoa:
Azpiroz, L.
Amaroz, 9.
Telefona: 943 67 51 18.

Otsailak 16, igandea

Tolosa
Egunekoa eta gauekoa:
Morant, B.
Zabalarreta Lorategiak, 1.
Telefona: 943 67 38 49.

Otsailak 17, astelehena

Tolosa
Egunekoa:
Bronte, C.
Korreo, 20.
Telefona: 943 67 60 13.
Gauekoa:
Santamaria, I.
Nafarroa etorbidea, 2.
Telefona: 943 65 46 10

ZORION AGURRAK



943 65 56 95
ataria@ataria.info

Iragarki laburrak

LAN BILA

Etxeko lanetarako: Etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, esperientzia handiko emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Kotxea ere eskura dauka. Deitu: 943 696 882 edota 606 521 992ra.

Eguraldia



Iker Ibarluzea
Eguraldi mutila

Ostiralean

Aldaketaxo batzuk nabaritu dira. Goizaldean hego-ekialdeko haizearekin jarraituko duenez, giro nahiko eguzkitsua mantenduko da, eta tenperaturak, nahiz atzokoa-rekin alderatuz gradu bat edo bi beheratu, nahiko goxoak izango dira eta 17-18°-ra iritsiko dira altuenak. Arratsaldean, berriz, haizeak iparraldera egingo du eta horrekin zertxobait gehiago freskatuko da giroa, eta gainera kostaldetik etorritako hodei batzuk geldituko dira. Hala ere, ez diote eguzkiari traba handirik egingo, eta nahiko giro eguzkitsuz gozatzeko aukera izango da.

Larunbatean


Ipar haizea nagusituko da eta egun osoan hodeiak eta ostarteak izango dira. Hodeiak ugariagoak izango dira arratsalde-iltuntze aldera eta gainera ez da baztertzeko euri langar pixka bat egitea. Hala ere oso gutxi izango da. Tenperaturak, hori bai, behera egingo dute, eta altuenak 14-15°-ren bueltan ibiliko dira.

Igandean

Oraindik ipar haizearen menpe jarraituko dugu. Goizean hodei dezente ikusiko dira, eta oraindik ere xirimiri pixka bat egin dezake. Halere, oso gutxi izango da. Egurditik aurrera haizeak ipar-ekialdera egingo du eta pixkana ostarteak zabaltzen hasiko dira, eta egunaren amaieran zerua nahiko garbi geratuko da. Hori bai, tenperaturak nahiko balio freskoetan geratuko dira, eta 13-14°-tik ez dira pasako.

Astelehenean

Berriz ere hego haizea bueltatuko da, ekialdetik eta hego-ekialdetik joko du, eta horrekin zerua garbi mantenduko da, eta tenperaturak igo egingo dira. Altuenak 17-18°-ren bueltan izango dira. Zerua nahiko garbi agertuko da eta horrekin udaberri itxurako eguraldi nahiko polita izango da. Dirudenez, joera horrek, giro eguzkitsu horrek, egun batzuetan jarraituko du.



Ostirala

7



Larunbata

8



Igandea

9



Astelehena

10





«HUHEZIren hezkuntza eredua berriztatzailea da eta kooperazioan du oinarria»

Irati Elorriaga Garmendia tolosarra Lehen Hezkuntza graduako 2. maila, Atzerriko Hizkuntzako ibilbidean, ikasten ari da MONDRAGON UNIBERTSITATEko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean (HUHEZI).

Zergatik aukeratu zenituen

Lehen Hezkuntzako ikasketak?

Txikitatik oso argi nuen irakasle izan nahi nuela. Beraz, ez zen azken momentuko erabakia izan. Hala ere, euskal filologia ikastea buruan banuen, izan ere eta ordura arte nire esperientzia kontuan izanik, nerabeekin irakasle bezala lan egitea asko gustatzen zitzaidan. Era berean, euskal filologjako ikasketak egiteak ez zitzaidan irakasle ikasketak bezain erakargarri iruditzen.

Eta zergatik HUHEZI-MONDRAGON UNIBERTSITATEAN?

Egiari zor, nire lehen aukera Euskal Herriko Unibertsitatea zen. Hasieratik matrikulatu nintzen Mondragon Unibertsitatean, baina dirua ere faktore garrantzitsua da unibertsitatea aukeratzeko orduan. Hala ere, orain berriz ere aukeraketa berdina eginarazten bazidaten uste dut hona, HUHEZIra etorriko nintzatekeela.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizi izandako esperientzia?

Bikaina. Lehenengo mailan klasera gogotsu joaten nintzen. Nire adineko jendea oraindik ez zekiena benetan aukeraturako horrekin gustura zeuden edo ez ikusten nuen. Nik, ordea, pentsatzen nuen gauza bakarra zen izugarritzko aukeraketa egin nuela. Materiei dagokienez, oso gustura ibili naiz orain arte ikusitakoarekin, benetan etorkizunean baliagarriak izango zaizkidala ikusten baitut. Gainera, aurtan nire lehen praktikak egin ditut eta esperientzia ikaragarria izan da, hurrengoak noiz izango diren zain nago!

Honetaz gain, Eskoriatzan ikasten nagoenez etxetik kanpo bizi naiz, batetik Tolosaren eta Eskoriatzaren arteko komunikazio nahiko txarra delako. Eta bestetik, egunero joan-etorriak egiteko nahiko distantzia dagoelako. Bestalde, kanpoan bizitzen ere asko ikas-



Irati Elorriaga Lehen Hezkuntza gradua ikasten ari da, Atzerriko Hizkuntzako ibilbidean.

ten da, bizitzako beste errealitate bat da eta benetan gomen-dagarria oso.

Zelan definituko zenuke HUHEZI-ren hezkuntza eredua?

Berriztatzailea eta kooperazioan du oinarria. Bere izaerarekin bat datozen ekintzak egiten dira, bere filosofiarekin bat datozenak. Azterketa oso gutxi egiten ditugu, talde lanetan aritzen gara ia beti. Gainera, uste dut ikasten duguna gaur egun gertatzen ari denarekin bat dator, beraiek prestatzen dituzten materialak berritzen doaz ikasleek proposatzen dien horretatik guztitik abiatuta.

Honez gain, ikasleok gure osotasunean hezi nahi gaituzte, honetarako kompetentzia espezifiko eta orokorrak erabiltzen dituztelarik. Hau da, ez gaituzte soilik irakasle bezala hezi nahi, kultura eta balio ezberdinak ere irakatsi nahi dizkigute.

Behin gradua bukatuta, zeintzuk dira zure asmoak?

Nahiz eta orain lan mundua nahiko beltz dagoen, ikasketak bukatutakoan irakasle bezala lan egitea. Dena den, hori da gustatuko litzaidakeena. Hala ere, badut buruan urtebetez Ingalaterrara joateko asmoa nire ingeles maila hobetzeko asmoz. Atzerriko hizkuntza da aukeratu dudana ibilbidea eta horregatik, ingelesean ondo prestatuta egon nahi dut. Gainera, honako hau ere nire bizitzarako esperientzia paregabea izan daitekeela uste dut.

Inauterietako argazki lehiaketa



Saria:

Berrobiko Iriarte Jatetxean
bi pertsonentzako otordua



Iriarte
jatexea

15. Urteurrena!
Zatoz gurekin ospatzera,
taxi zerbitzua ere eskaintzen dugu.
943 683078 • Berrobi

Bidali zure inauterietako argazkirik politena, **martxoaren 16a**
baino lehen ataria@ataria.info helbidera eta jaso saria!

 **tolosaldeko
ataria**